HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, JUAN: *La feudalización del Derecho Corporativo transnacional. La nueva Lex Mercatoria en Bolivia*, in *Las multinacionales en Bolivia. De la desnacionalización al proceso de cambio* (liburua). Liburu-kapitulua: Hasierako orrialdea: 37 Amaierako orrialdea: 64. Argitaratze-tokia: Cochabamba. Bolivia. Argitaldaria: Centro de Documentación e Investigaciones de Bolivia. Argitaratze-urtea: 2010. Icaria aldizkarian ere argitaraturiko kapituluak, 43.-74. orrialdeak, Bartzelona 2010.

JUBETO RUIZ, YOLANDA eta ARRESKURRINAGA, EFRÉN: *Garapen bideko ekonomiak*. Liburuko kapituluak: *Ekonomia globala: gizarte globalerako oinarri berriak*. Editorea, Mikel Zurbano, UPV/EHU, Bilbao.

MARTINEZ HERRERO, MARIA JOSÉ; ZABALA ERRAZTI, IDOYE: *Economic Crisis, Gender Repercussions and Official Development Aid*; in Koldo Unceta eta Amaia Arrinda (ed.) *Development Cooperation: Facing the*

Challenges of Global Change. Argitaldaria: Center for Basque Studies. Current Research Series, 3. zk. University of Reno, Nevada; 75.-92. or.

MENDIA AZKUE, IRANTZU: *Género, rehabilitación posbélica y construcción de la paz. Aspectos teóricos y aproximación a la experiencia en El Salvador*, HEGOA (UPV/EHU).

PÉREZ DE ARMIÑO, KARLOS eta ZIRIÓN, IKER: *La acción humanitaria como instrumento para la construcción de la paz. Herramientas, potencialidades y críticas*, Hegoaren Lan Koadernoak, 51. zk., UPV-EHU, Bilbao.

PÉREZ DE ARMIÑO, KARLOS eta MENDIA AZKUE, IRANTZU: "New dimensions in Humanitarian Action: Conflict-sensitive and Gender-focused Aid", in Koldo Unceta eta Amaia Arrinda (editoreak), *Development Cooperation. Facing the Challenges of Global Change*, Center for Basque Studies, Current Research Series, 3. zk., University of Nevada, Reno.

PÉREZ DE ARMIÑO, KARLOS: *El fracaso de la lucha contra el hambre: un problema de gobernanza global*, in Alfonso Guerra, José Félix Tezanos y Sergio Tezanos Vázquez (eds.), *La lucha contra el hambre y la pobreza. VIII Encuentro Salamanca*, Editorial Sistema, Madril, 143-174. or.

ZABALA ERRAZTI, IDOYE; MARTINEZ HERRERO, MARIA JOSÉ; LUXAN SERRANO, MARTA (2010): *Conciliation and Participation: Capacities that Affect Women's Well-being and Quality of Life*, in Mari Luz Esteban eta Mila Amurrio (ed.) *Feminist Challenges in the Social Sciences. Gender Studies in the Basque Country*. Argitaldaria: Center for Basque Studies. Current Research Series, 3. zk., University of Reno, Nevada; 175.-189. or.

Artikuluak eta ikerketak

Alberdi, Jokin: *Ayudando o perjudicando a África: las relaciones de la Unión europea, España y el País Vasco con el continente*. Hermes, 34. zk., Bilbao, Sabino Arana Fundazioa, (2010), 12.-19. or.

Alberdi, Jokin: *Lo común: la diversidad y la interculturalidad en la vida cotidiana*. Haque, A. eta Oiangu-ren, M. (ed.): *Historias de vida, lugares simbólicos y reconstrucción de identidades en las construcción de paz*. Gernika Sarea/Gernika Gogoratuz, 17. dokumentua; (2010), 25.-34. or.

Alberdi, Jokin: *Pluralismo jurídico y justicia comunitaria en los estados periféricos en transición. Aproximaciones teóricas y panorama general*. Hika, 220. zk.; (2010), 34.-35. or.

Alberdi, Jokin: *The role of local and regional authorities in european community development aid policy: beyond decentralised aid*. Hoebink, P. (ed.): *European development cooperation: in between the local and the global*. Amsterdam University Press, (2010), 291.-319. or.

Allum, Liz; Lowe, Barbara; Madeira, Bente; Richard, Dave; Robinson, Louise (2010): *¿Por qué África es tan pobre y Europa tan rica?*. RISC, Erresuma Batua. Argitaratze-urtea: 2010.

Astola, Jasone eta Mertxe Larrañaga: *Higher learning and equality politics at the University of the basque country*, in Esteban, M^aLuz eta Amurrio, Mila (koord.): *Feminist challenges in the social sciences. Gender studies in the Basque Country*, Argit.: Center For Basque Studies University Of Nevada eta UPV/EHU 2010.

Bidaurratzaga, Eduardo: *¿Hacia dónde va África? algunas reflexiones sobre el pasado reciente y las perspectivas futuras del continente*. Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria. Zenbakia: 34. zk. Hasierako orrialdea: 4 Amaierako orrialdea: 9.

Bidaurratzaga, Eduardo; Pérez de Mendiguren, Juan Carlos eta Guridi, Luis: *Cooperation between the EU and Sub-Saharan Africa: a development proposal based on open regionalism and economic partnership agreements*. Current research. University of Nevada, Reno. Zenbakia: 3. zk. Hasierako orrialdea: 187 Amaierako orrialdea: 2005. Argitaratze-urtea: 2010.

Clementi, Marta; Basile, Luca Francesco; D Agostino, Elisabetta (Koord) (2010): *Des-Acuerdos de libre co-*

mercio ¿Será cierto que el mercado genera desarrollo? Amici dei Populi, Bologna, Italia.

De Ridder, Harry; Steenbee, Marij (2010): *Comerciar con Europa ¿Es bueno o malo para los países en desarrollo?* Centrum voor Mondiaal Onderwijs. Nijmegen -Herbehereak.

Del Río Martínez, Amaia; Lleó Fernández, Rocío (koord.): *Género en la Educación para el Desarrollo. Abriendo la mirada a la Interculturalidad, Pueblos indígenas, Soberanía alimentaria y Educación para la paz*, Hegoa eta Acsur- Las Segovias, Bilbao.

Dubois, Alfonso: *Pensar un futuro para la sociedad global desde la solidaridad creativa*. Revista Internacional de Estudios Vascos. Eusko Ikaskuntza, 2010eko lib., 7. zk., 59.-95. or.

Guzmán, Gloria eta Mendia, Irantzu: *Tribunal de conciencia. Las mujeres guatemaltecas abriendo caminos para la verdad y la justicia*, in *Esbozos*, Revista de Filosofía Política y Ayuda al Desarrollo, 4. zk., Red de Investigación y Observatorio de la Solidaridad (RIOS), urria.

Jubeto Ruiz, Yolanda eta O hagan, Ángela: *Budgeting. Proposal to the European Union Institutions on the Added value of introducing gender-based analysis*. Txosten teknikoa, Berdintasun Ministerioa, Madril.

Hernández, Juan eta De la Fuente, Mikel: *International Labor Law, International Business, and development Cooperation: The international Labour Organization and Social Clauses*. Center for Basque Studies Current Research Series, 3. zk. 145.-165. or. Reno, Nevada. 2010eko abendua.

Hernández, Juan eta Ramiro, Pedro: *Seguridad jurídica ¿para quién?*, Pueblos aldizkaria, 43. zk. 33.-38. or.

Hernández, Juan: *Empresas transnacionales en América Latina: ¿Hacia un nuevo modelo de desarrollo?*, Viento Sur aldizkaria, 112. zk. 15.-22. or.

Larrañaga, Mertxe: *Berdintasuna, mitoa ote? Ezberdintasun ekonomikoen análisis* en Astola, Jasone

(koord.): *Berdintasuna eta jurisdikzioa. Diziplinarteko II. jardunaldia*, UPV/EHU, 2010.

Larrañaga, Mertxe: *Mujeres, crisis y objetivos de desarrollo del milenio*, in *Los ODM ante el reto de la igualdad de genero*, Pau Y Solidaritat fundazioa, 2010.

Larrañaga, Mertxe: *Nazioarteko moneta eta finantza harremanak*, in Zurbano, Mikel (koord.): *Ekonomia globala. Gizarte globalerako oinarri berriak*, UEU, 2010.

Larrañaga, Mertxe: *Tiempos de crisis, tiempos de ajustes, tiempos de mujeres*, in *Trasversales*, 19. zk, Madril, 2010.

Mendia, Irantzu: *Mujeres en situaciones de conflicto*, in *ZZEE: Reivindicaciones feministas para una ciudadanía transformadora*, HEGOA/ACSUR, Bilbao/Madril.

Pérez de Armiño, Karlos eta Mendia, Irantzu (2010), *New Dimensions in Humanitarian Action: Conflict-sensitive and Gender-focused Aid*, in *Current Research Series, 3. lib.* (Monografikoa: Development Cooperation: Facing the Challenges of Global Change), Nevada University, Reno (Nevada, AEB), 93.-108. or.

Zabala Errazti, Idoye: *Estrategias alternativas en los debates sobre género y desarrollo*, in *Revista de Economía Crítica*, 9. zk, 2010eko lehen seiñilekoa, 75.-89. or.

Biltzarretako txostenak eta komunikazioak

ALBERDI, JOKIN: *La gobernanza democrática y la protección de los derechos humanos en la Asociación UE-África*. VII Congreso de Estudios Africanos do Mundo Ibérico. Lisboa.

ALBERDI, JOKIN: *Relaciones intergubernamentales y constitucionalismo multinivel: La participación estatal y autonómica en la política comunitaria de cooperación al Desarrollo*. VIII Congreso de Asociación de Constitucionalistas de España. Derecho Constitucional Europeo.

BIDAURRATZAGA, EDUARDO: *¿Hacia el desarrollo humano en Africa desde los ODMs?: principales logros, limitaciones y retos en el ámbito de la salud*. "Ciea7. 50 anos das independências africanas: desafios para a modernidade" biltzarra. Lisboa. 2010eko iraila.

BIDAURRATZAGA, EDUARDO: *Las nuevas relaciones UE-África Subsahariana en la era post-Lomé: la controversia sobre los potenciales efectos de los epas para el desarrollo de la region*. II Congreso Internacional África-Occidente. Huelva. 2010eko urria.

BIDAURRATZAGA, EDUARDO: *Políticas sanitarias y de lucha contra el vih/sida en Mozambique: aportaciones, limitaciones y retos de los actores locales y extranjeros*. VIII. Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Kongresua. Bilbao. 2010eko otsaila.

LARRAÑAGA, MERTXE eta M^a LUZ DE LA CAL: *Modelos de actividad laboral de las mujeres en la UE-27*, in Espainiako Soziologia Federazioaren X. Biltzarra. Iruña. 2010eko utaila.

LARRAÑAGA, MERTXE eta YOLANDA JUBETO: *Repensando la crisis desde un enfoque de género*, in XII Jornadas de Economía Crítica. Zaragoza. 2010eko otsaila.

LARRAÑAGA, MERTXE: *Berdintasuna lanean, mitoa ote?*, in Euskaraz ere ikertzen da Euskal herriko Unibertsitatean. Bilbao. 2010eko martxoa.

PÉREZ DE ARMIÑO, KARLOS eta ZIRIÓN, IKER: *La ayuda internacional 'sensible al conflicto': Análisis crítico de los enfoques y de las herramientas*. "VIII. Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Kongresua 'Gizarte eta Berrikuntza XXI. mendean'" biltzarreko komunikazioa. Bilbao. 2010eko otsailaren 10etik 12ra.

MENDIA, IRANTZU: *Las mujeres ante el conflicto y la paz. Temas para el debate*, txostena, "Feminismoak garapenerako agendan" topaketa, HEGOA (UPV/EHU). Bilbao. Maiatzaren 27tik 28ra.

PÉREZ DE ARMIÑO, KARLOS eta ZIRIÓN, IKER: *La implementación de la ayuda internacional "sensible al*

conflicto" en el África Subsahariana. Análisis y críticas. 7th Iberian Congress of African Studies, Lisboa. Lisboako Unibertsitatea, 2010eko irailaren 11.


ZABALO, PATXI: *América Latina ante las demandas inversor-estado. XII Reunión de Economía Mundial. Santiago (Galizia), 2010eko maiatzaren 26tik 28ra.*

Irakaskuntzarako

eta ikerketarako baliabideak

Gaur egun, Dokumentazio Zentroak 18.500 erregistro baino gehiago dauzka bere Liburutegi Digitalean. Hori da, hain zuzen ere, Hegoak 1998az geroztik bilduriko ondarea, eta han daude jasota garapenari eta lankidetzari buruzko egun arteko eztabaida nagusiak. Ondare hori egon eta erabiltzeari esker, Institutuko irakasle eta ikertzaileek zein gizarte-agenteei eta jendeak, oro har, aurrera egin ahal izan dute garapenerako lankidetzaren lan eta politikan Euskal Herrian.

Dokumentazio Zentralaren zerbitzuek azken hamarkadan izan duten bilakaera bat dator zentroa informazioaren eta komunikazioaren teknologietara aldatzearekin eta haiei egokitzearekin. 2010. urtean, nabarmentzekoa da Liburutegi Digitaleko irakurgaiak *on line* banatu izana, 186.757 pdf agiri deskargaturik, eta 86.632 pertsonaren bisitak jasorik, Google-n araber.




- Kontsultak eta maileguak: 2000 (2.200); 2001 (2.900); 2002 (2.950); 2003 (2.780); 2004 (1.503); 2005 (1.014); 2006 (972); 2007 (686); 2008 (780); 2009 (553); 2010 (1.175)
- Liburutegi Digitala (pertsonak, Googleren arabera): 2004 (3.003); 2005 (10.646); 2006 (46.952); 2007 (56.837); 2008 (53.532); 2009 (77.378); 2010 (86.632)
- Pdf agirien deskargak: 2006 (6.905); 2007 (15.905); 2008 (64.095); 2009 (160.434); 2010 (186.757)
- Buletina (pertsonak, Googleren arabera): 2004 (400); 2005 (450); 2006 (500); 2007 (6.500); 2008 (9.500); 2009 (37.836); 2010 (25.656)
- Erreferentziako lanak (pertsonak, Googleren arabera): 2007 (1.100); 2008 (1.300); 2009 (12.173); 2010 (11.211)
- Hemeroteka (pertsonak, Googleren arabera): 2007 (3.200); 2008 (3.800); 2009 (24.937); 2010 (39.234)

ETA GARAPENARI BURUZKO IKA

Dokumentazio Zentroak informazio digitalaren, buletin espezializatuen, hemerotekaren eta erreferentzia-atalaren beste zerbitzu batzuk mantentzen ditu. Denak lankidetzaren eta garapenaren inguruko gaietan espezializaturik daude, eta 2010. urtean, guztiek batera, 76.101 bisita jaso dituzte. Liburutegiko lokaletan doktoregaiei, graduondoko ikasleei eta jendeari, oro har, emandako laguntza pertsonalizatuak gehitu behar dira; halakoak, 2010ean, 1.175 pertsona izan ziren.

Hegoaren Liburutegi Digitala nazioarteko lankidetzan eta garapenean espezializatutako datu-base nagusietako bat da gaztelaniaz. Datu-trafikoari dagokionez, batez ere Ameriketatik (%56,3), aurreko urtetik gora egiten jarraitu duelarik, eta Europatik (%43,2) etorri dira eskaerak. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremutik eskaeren (%20) etorri ziren, eta Espainiako Estatutik (%19), azken horiek aurreko urtean baino gehiago.



Aholkularitzako eta gaikuntza teknikoko jarduerak

Guatemalan lankidetzan aritzeko euskal estrategian laguntzea

Hegoan, *Guatemalarekin lankidetzan aritzeko euskal estrategian* parte hartzen dugu, Eusko Jaurleri-tzarekiko hitzarmen baten bitartez. Guatemalako errealitatearen gaineko diagnostiko bat eta euskal lankidetzak eginiko lanaren azterketa kritiko bat abiapuntutzat harturik, *Estrategiak* bestelako lankidetzak-eredu bat bultzatzen du, lana arloka eta/edo prozesuak kontuan hartzen duen ikuspuntua gainditurik, Guatemala bidezko, zuzentasunezko eta demokratiko baten alde eragin handiena duten subjektuak-gizarte-mugimenduak eta tokiko botereak- indartzeko helburuak dituen.

Hegoan, egungo Guatemalan aldaketaren subjektu estrategikoak direnak era integralean indartzeko helburua duen estrategia sustatzen dugu: mugimendu feminista, nekazarien eta indigenen mugimendua, eta tokiko botere konprometituak. Hala, 3 *lan-mahai sektorial* dinamizatzen ditugu, haietan aldaketaren subjektu diren hainbat erakunde parte hartzen dutela, euskal lankidetzaren esparruaren barruan, betiere. Mahai horien xedea da bakoitzari dagokion jarduera-plana-kide diren erakundeek parte-hartzearen bidez taxuturiko plan bat- gauzatzeko, antolatzeko, salatzeko, hautabideak sortzeko, eragina izateko eta abarretarako gaitasunak era kolektiboan indartzeko aldera. Gizarte garapenerako eta lankidetzarako paradigma berriak eratzeko, aplikatzeko nahiz haiek eragina izanarazteko dugun esperientziak berak eta Guatemalan lankidetzak-proiektuak gauzatzeko parte-hartze zuzenik ez izateak ahalbidetzen digute prozesu hori bideratzen duen erakundea izatea, *Estrategiak* eskatzen duen ikuspegi global eta orokorrari eutsirik.

Subjektu politikoak indartzeko prozesu hori sendotu egin da 2010ean, harreman horizontaletan nahiz konfiantza politikazko harremanetan oinarrituz. Halaber, sektore arteko jarduerak eta topaketak antolatu dira, eta sektoreak indartzeko beste pauso bat eman ahal izan da horrela, arazo, borroka eta amets komunak antolatzea errazago egite aldera. 2011. urterako, beste hitzarmen bat onartu da, eta horrek prozesuari jarraipena emango dio.

Ekonomia sozial eta solidarioako laguntza

Ekuadorren Andes Programa identifikatu zen, Eusko Jaurlearitzak 2010eko programa-deialdian onartu zuen programa. Ikerkuntzako eta gaikuntzako osagaiak dauzka, eta laguntza tekniko ematen die ekonomia solidarioako ekimenei (ESS), herrialde-mailan eta Loja probintzian. Haren iraupena hiru urtekoa da, eta Herri Ekonomiaren sektorearen barrukoa da. Sektore horretan izan nahi du eragina herri-, gizarte- eta elkartasun-ekonomiak barne hartzen dituen agenda bat taxututa. Agenda hori egin eta zabaltzea ekarpena izango da egungo ekonomiaren esparruan egiturazko desberdintasunaren kausatzat jotzen duten erakunde, arau eta balioak eraldatzeko.

Horren osagarri da Euskadiko tokiko ekonomia-garapenerako eta ekonomia solidarioako gaikuntza-hitzarmena, sektore horretan lan egiten duten hainbat erakunde parte harturik: UPV-EHU, REAS, FIARE, MUNDUKIDE, SETEM, GEZKI, EMAUS, LANKI, HEGOA. Bi mintegi egin dira 2010ean, eta programak 2011n ere jarraituko du.

Era berean, gaikuntzako eta elkartrukeko mintegiak egin dira Latinoamerikako herrialdeetako ekonomia solidarioa gai hartuta. 2011rako, Bolivian eta Ekuadorren mintegiak egiteko asmoa dago, sektorean diharduten hainbat erakundekin koordinaturik, hala nola, ekonomia solidarioako eta bidezko merkataritzako mugimenduekin, unibertsitateekin, GGKEekin, gobernuko erakundeekin eta abarrekin, politika publikoan inpaktua areagotzeko ekintzak bultzatzearen.

Garapenerako Hezkuntzarako Aholkularitza

Garapenerako Lankidetzarako Kataluniako Agentziak eskaturik, iritzia emateko agiri bat osatu da *Garapenerako Hezkuntzaren ildo estrategikoa* definitzeko, Garapenerako Lankidetzarako 2011-2014ko Gida Plana taxutzeko prozesuaren barruan.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien 2009–2011ko Garapenerako Lankidetzako Gida Planaren jarraipena egiteko jardueren barruan, prestakuntzako ikastaroak eman zaizkie, 8na ordukoak, probintzia bakoitzeko GGKEei:

- Zeharkako ardatza: Genero-zuzentasuna: Ikastaro-emailea, Amaia del Río. Urriaren 19an, Donostian; urriaren 26an, Bilbon; eta azaroaren 2an, Gasteizen.
- Zeharkako ardatza: Garapenerako Hezkuntza. Ikastaro-emailea, Gema Celorio. Urriaren 20an, Donostian; urriaren 27an, Bilbon; eta azaroaren 3an, Gasteizen.

Tokiko Giza Garapenerako Laguntza Kuban eta SAED-n

Kuban, 2010. urtean zehar tokiko ekonomia-garapeneren sektorerako gaikuntzako eta laguntza teknikoaren proiektua aurrera eramaten jarraitu da, CAI Maceo nekazaritzako eta industriako konplexuaren (Cacocum udalerria, Holguín probintzia) birmoldaketan laguntza emanda, Eusko Jaurlaritzak eta Kubako MINCEXek bultzaturiko Kubarekin Lankidetzan aritzeko Euskal Estrategiaren barruan. Bereziki, laguntza eman da gaikuntzari, genero-diagnostikoari eta enpresak sortzeko ekimenei lotutako elementuetan.

Halaber, 2010. urtean Kuban Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmen bat bukatu zen, honako hauek barne hartu dituena: i) zeharkako eran laguntza ematea MINCEXi gaikuntzaren eta laguntza teknikoaren arloan, Habanan diploma-ikastaro bat emanez eta Gaikuntzako Zentro Nazionalari lagunduz; ii) MINAZen Gaikuntzako Zentro Nazionalari laguntzea; eta iii) Holguíngo Unibertsitatearekin hiru ikerketa egitea elikagai-burujabetzaren eta azukre-industriaren birmoldaketaren inguruko bai batzuei buruz.

SAEDn, saharar errefuxiatuentzako gaikuntzako eta laguntza teknikoaren proiektuetan lan egiten da, Tindufeko (Aljeria) kanpamenduetan, AECIDen finantzaketarekin. Lankidetzako espezialistako ikastaroak eman dira minis-

terioetako eta erakundeetako teknikarientzat, bai eta berriazko ikastaroak uilaitan ere. Halaber, Funtzio Publiko Administrazio Eskola indartu da.

2010. urtean amaitu zen mikromailegu-programak sustatzeko proiektu bat, gaikuntza, ekipamendua eta laguntza teknikoa barne hartzen zituena. Batetik, sektore publikoko langileentzat zen, eta, bestetik, Saharar Emakumeen Elkargo Nazioanaleko (SEEN) emakume-kooperatibentzat. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen zuen proiektua, eta erakundeetako langileen antolatze eta ekiteko gaitasunak indartzeko helburua izan du, tokiko ekonomia-garapenean laguntzeko estrategia baten barruan, eskasia eta nazioarteko laguntzen murrizketa gertatzen diren testuinguru batean.

2010. urtean, saharar gazteen artean enplegua sortzeko lan-ildoari ere jarraipena eman zaio Eusko Jaurlaritzaren eta AECIDen baterako finantzaketa jaso duen proiektu batekin, Smara uilaian ekoizpen- eta zerbitzu-zentro bat ekipamenduz hornitu eta abian jarrita. Enplegu-zentro hori aitzindaria da sahararren kanpamenduetan: soldadurako eta zurgintzako lantegiak dauzka, bai eta beste zerbitzu batzuk ere, hala nola, jatetxea, okindegia, ziberzentroa eta beste batzuk. Helburua da lan-aukerak ematea lanbide-prestakuntzatik datozen gazteei, gaitasun eta aukeren garapeneren esparruan.

Medellín programa

Kolonbian Antioquia-Medellín, Bizkaia-Bilbao (2008 – 2011) programa garatzeko lankidetzako hitzarmenari dagokion laguntza teknikoan eta jarraipenean lan egiten da. Bizkaia-Bilbao Partzuergoak parte hartzen du hartan –Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta BBK kide direlarik–, eta Antioquiako Gobernua, Medellingo Udala eta Antioquiako Unibertsitatea dira kontraparteak. Programako jarduerak bi aldetan gauzatzen dira. Batetik, herrialdeko ipar-ekialdean: bertan, sei udalerritako hainbat emakume-elkarteri ematen ari zaie laguntza, mikroekimenak abian jartzeko. Beste aldetik,

Medellíngo 8. eta 9. barrutietan (*comunas*): hango biztanle gehienak afrikarren ondorengoak dira, eta ekoizte-ekimen txikiak gauzatzen dira han ere, horrez gain, kasu honetan, afrikar jatorriko kultura sendotzeko eta haren aitormena lortzeko osagai bat ere badagoelarik. Batean zein bestean, Bizkaia – Bilbao Partzuergoak tokiko kontraparteei eskatzen dien baldintza bakarra genero-zuzentasuna da, egiten diren jarduera guztietan aintzat har dezan.

Aldundiei, Udalei eta BBK-ri Aholku ematea

EAEko hiru aldundiei aholkularitza ematen jarraitu da 2010. urtean, bai eta Irungo, Tolosako, Eibarreko eta Beasaingo udalei ere. Aholkularitza eman da, funtsean, lankidetzako eta sentiberatzeko proiektuei diruz laguntzeko deialdien oinarriak egitean, aipatutako erakunde deialdietara aurkeztutako proiektuak aztertzean eta onartutako proiektuei jarraipena egitean. Eta prozesu horretan, etengabe lagun egin zaie erakunde horiei haien lankidetzako programen aplikazio eta dinamizazioarekin lotuta dagoen guztiari dagokionez.

Gipuzkoako Foru Aldundiarentzako aholkularitza-lanaren barruan, Guatemalan lankidetzako esperientzien ebaluazio bat egin da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzak hartutako hiru ikuspegiak kontuan harturik. Horretarako, herrialde horretako zenbait proiektu bisitatu dira.

Foru-aldundietzako aholkularitza teknikoari lotuta, EAEko GGKEei prestakuntza-ikastaro bat eman zitzaion, foru-aldundien 2009-2011ko Gida Planaren hiru ikuspegietatik biri buruz: Genero-zuzentasunari eta Garapenerako Hezkuntzari buruz, hain zuzen ere. Ikastaroa 16 ordukoa izan zen, eta bereziki bi gai horien esparru teorikoa eta Gida Planean ematen zaien tratamenduaren arteko lotura lantzeko atonduta zegoen, plan hori aldundiek onarturiko proiektuetan ikuspegiok aplikatzeko izanik. Ikastaroa EAEko hiru hiriburuetan eman zen.

Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko deialdietan onarturiko proiektuei dagokionez, Guatemalako zenbait

proiekturen jarraipena egiteko bisita bat egin da, haien bilakaerak eta emaitzak ezagutzearren.

Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntza teknikoa eman zaio "*Justizia klimatikoa, elikagaien segurtasuna eta landa ingurune emakumea*" proiektua abian jartzen, aurrera eramaten eta haren jarraipena egiten laguntzeko. Jarduera hori zuzeneko lankidetzaren modalitatea aurrera eramaten da Perun, Piuran eta Cuscon. Flora Tristán elkarte buru duen partzuergo bat gauzatzen ari da, udalerrisare batzuk, ekoizpen agroekologikoko erakunde bat, Cuscoko San Antonio Abad Unibertsitatea eta Piurako Unibertsitate Nazionalean ere tartean direlarik. Proiektuaren xedea da Cuscoko eta Piurako landa-sektore txiroetako emakumeek (nekazaritzan dihardute hektarea bateko baino gutxiagoko ekonomia-unitateetan) ekoizpen- eta ekonomia-baliabideak bereganatu eta kontrolatu ditzaten, berdintasuneko baldintzetan, bai eta haien ekarpenari aitormena egin dakion ere, bai elikagai-segurtasunari bai klima-aldaketara moldatzeari eta hura arintzeari dagokienez. Horrela, haien autonomia eta ahalduak ekonomikoa erdietsi nahi dira, haien eskubideak babestearren eta bizi-baldintzak hobetzearren.

Lehen pauso horren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Flora Tristán elkartearen artean hasitako elkarlanari hedadura handiagoa emateko asmoa dago, Gipuzkoako zein Cuscoko eta Piurako lankidetzako agente gehiagoren engaiamendu aktiboa lorturik.

2010. urtean, BBKren deialdiaren proiektuak balioztatzeko aholkularitza ematen jarraitu da lanean, bai eta aurreko beste urte batzuetan onarturiko proiektuen jarraipena egiten ere, garapenerako lankidetzako proiektuei nahiz sentiberatze-proiektuei dagokienez.

2015 y + Plataforma

Aholkularitza, aholku teknikoak, lagun-egitea eta dinamizazioa *2015 y más Plataformak* aurkeztu eta kudeatutako eta AECIDek finantzaturiko proiektu/hitzarmenaren: "Palestinarren eta israeldarren arteko bakea eraikitzeko ekimenetarako laguntza, bi gizarte

zibiletako erakundeak indartuz, elkarrizketa politiko eta sozialaz, eta nazioarteko zuzenbidearen eta giza eskubideen gaineko ezagutzaz, babesaz eta sentiberatzeaz. Palestinako Lurralde Okupatuak eta inguruko herrialdeetako palestinar errefuxiatuak. 4 urte. 07-C01-024".

Beste aholkularitza batzuk

Kubarekin Lankidetzan aritzeko Euskal Estrategiaren ebaluazioa. Laguntza teknikoa eman da lan-misio batekin Kuban. Hala, bilerak egin dira eta tartean zeuden erakundeen (GGKEak, Kubako elkarteak, ministerioak eta abar) proiektuetara joan da bisitan. EAEko GGKEekin elkarrizketak egin dira, eta azken txostena Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zaio.

Halaber, plangintzari ekin zaio Eusko Jaurlaritzari identifikazio-zerbitzuak emateko, herrialde-estrategia berri baterako, Ekuadorren; hain zuzen ere, 2011n egingo da.

Funts pribatu batzuen finantzaketarekin, laguntza teknikoa ematen ari da "Habanako Medikuntza Liburutegi Nazionala Eraberritzea" deritzon proiekturako, Kuban. Liburutegia Osasun Ministerioko Medikuntza Zientzien Institutuari lotuta dago.

Ekuadorreko ART-PNUD programaren barruan, laguntza tekniko bat aurrera eraman da 2 ikastaro emanik, "Gaikuntzaren kudeaketa" gai hartuta, Estatuz azpiko gobernuetako lan-talde teknikoentzat, eta laguntza teknikoa eman zaio Goi Ikasketa Nazionalen Institutuari, Lurraldeko Ekonomia Garapeneko Diploma ebaluatu eta berriz diseinatzeko.

Sare eta foroetako parte-hartzea

ENLAZANDO ALTERNATIVAS. Aliantza Sozial Kontinental eta Europa América Latina y Caribe Enlazando Alternativas eskualde biko sareko kide diren Europako hainbat herrialdeetako erakundeek 2010eko maiatzean Herrien Auzitegi Iraunkorraren (HAI) beste saio batera deitu zuten. Saio hori "Kapitalaren Europaren eta Gerraren eta Haien Krisien Aurka" kanpainarekin koordinatuta aurrera eramane zen. Orduko horretan, saioaren gai nagusia izan zen Europar Batasunak (EB) enpresa transnasionalekin (ETN) duen konplizitatea. Europako ETNen zigorgabetasuna salatu zuten, bai eta herrien eskubideen gainean izandako inpaktuak ere.

HARRESIAK APURTUZ. Hegoa, Garapenaren Hezkuntzako Arloaren bitartez, Euskal Herriko etorkinen laguntzarako GKEen koordinakunde horretako kidea da.

MOSAIKO. Garapenerako hezkuntzari buruzko eskualde-mailako gogoeta-taldea da. *Polygone* Garapenerako Hezkuntzako eta Herri Hezkuntzako Nazioarteko Sarean (2003- 2007) zegoen tokiko sare baten eraketan du jatorria. *Polygone* desegin ondoren, Euskal Herriko eta Asturiaseko erakunde batzuek ikaskuntza kolektiboko espiritu horri eutsi nahi izan zioten tokiko eremuan, eta *Mosaiko* abian jarri zuten. Talde horren asmoa da kide diren erakundeen sentiberatzeko, prestatzeko eta salatzeko estrategia eta praktiken inguruan gogoeta egitea, gure praktiketarako indartze- eta ikaste-estrategia gisa. Gaur egun, Mosaikon honako hauek daude: Elkarbanatuz, Inicativas de Cooperación y Desarrollo, Mugarik Gabe, Círculo Solidario, Alboan, ACSUR- Las Segovias eta Hegoa. Kide horiek, 2010. urtean, erakunde askoren gizarte-mobilizazioko eta eragin politikoko esperientziak elkarri ezagutarazi dizkiote eta bisitatu dituzte, eta, horietatik, elkarri ezagutarazteko eta zabalteko ondorioak aterako dira, 2011rako.

PLATAFORMA AMANDA. AMANDA plataforman Gasteizko alde zaharreko hezkuntza-ingurune hainbat elkarte biltzen dira, eta haren xedea da kulturen arteko eskola eta ingurunea sustatzeko jarduerak koordinatu eta bultzatzea. Joan den urtean, alde zaharreko kolektiboek hezkuntzako esperientzia komunitarioak hurbildu zituzkio, hala nola, ikas komunitateak, ingurune hezkuntza-planak, eta ikasketa eta zerbitzua, hezkuntza-plan propio bat taxutze aldera, erakundeak, kolektiboak eta gainerako hezkuntza-agentek engaiatzeko koordinatua, koherentea eta komunitatean txertaturikoa izango den proiektu batean.

Erakunde organigrama

Hegoa Institutuko Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaria: Luis Guridi **Idazkaria:** Irantzu Mendia **Kontseilukideak:** Gloria Guzmán, Gema Celorio, Maite Fernández-Villa, M^a Jose Martinez, Mertxe Larrañaga, Irati Labaien, Carlos Puig, Patxi Zabalo, Juan Hernández, Gonzalo Fernández.

Hegoa Elkarteko Zuzendaritza Batzordea

(Herri-onurako izendapena jaso duen elkarte. EHAA, 165. zk., 2003ko abuztuaren 26a)

Batzordeburua: Patxi Zabalo **Batzordeburuordea:** Mari Luz de la Cal **Idazkaria** Eduardo Bidaurratzaga **Diruzaina:** Luis Guridi **Batzordekideak:** María José Mijangos, Mikel de la Fuente, Yolanda Jubeto, Juan Carlos Pérez de Mendiguren

Hegoa Institutuari atxikitako irakasleak

Xabier Aierdi, Jokin Alberdi, Efrén Arreskurrinaga, Xavier Barrutia, Roberto Bermejo, Eduardo Bidaurratza, Mari Luz de la Cal, Mikel de la Fuente, Juanjo Celorio, Marian Díez, Alfonso Dubois, Iker Etxano, Xabi Gainza, Luis Guridi, Jorge Gutiérrez, Juan Hernández Zubizarreta, Pedro Ibarra, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Jon Larrañaga, Imanol Madariaga, Eduardo Malagón, Zesar Martínez, Elena Martínez Tola, Mari José Martínez, Karlos Pérez de Armiño, Juan C. Pérez de Mendiguren, Víctor Pozas, Uri Ruiz Bikandi, Joseba Andoni Sainz de Murieta, Koldo Unceta, Unai Villalba, Idoie Zabala, Patxi Zabalo, Imanol Zubero, Mikel Zurbano.

Lan-talde teknikoa

Koordinatzaile orokorra: Gonzalo Fernández **Dokumentazioa eta Irakaskuntza:** Maribi Lamas, Itziar Hernández, Marisa Lamas, Amaia Guerrero, Iñaki Gandariasbeitia **Ikerkuntza:** Gloria Guzmán, Iván Molina, Iker Zirion **Garapenerako Hezkuntza:** Gema Celorio, Amaia del Río, Alicia López de Munain, Miguel Argibay **Aholkularitza:** Carlos Puig, Michel Sabalza, Maite Fernández-Villa, Yenifer García, Luis Elizondo, Juan Bedialauneta, Javier González **Finantzak:** Pilar Jurado, Sergio Campo, Almudena Sainz, Amaia Guerrero **Idazkaritza eta Administrazioa:** Joana del Olmo, Rosario Uriarte.

Sareak eta lankidetzak

ARDA (Afrikako Ikerketa eta Irakaskuntzarako Elkarte) • Euskadiko GGKEen Koordinakundea (kide laguntzailea) • Espainiako GGKEen Koordinakundea (kide laguntzailea) • Harresiak Apurtuz - Euskal Herriko etorkinen laguntzarako GKEen koordinakundea • WIDE Women in Development Europe • EADI European Association of Development Institutions • REDIAL (Latinoamerikari buruzko Europako Informazio eta Dokumentazio Sarea) • SID (Garapenerako Nazioarteko Elkarte) • SEDIC (Dokumentazio eta Informazio Zientifikorako Espainiako Elkarte) • ALDEE (Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarte).

Lankideak


Eskerrak ematen dizkiegu urtean zehar batera edo bestera hainbat jardueratan Hegoa Institutuaren lankide izan diren pertsona guztiei.

Txosten ekonomikoa

Hegoako, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua


Galeren eta Irabazien Kontua, 2010eko abenduaren 31n (eurotan adierazita)

| | (ZOR) HARTZEKO 2010.12.31 | (ZOR) HARTZEKO 2009.12.31 |
|--|------------------------------|------------------------------|
| • Erakundearen sarrerak, berezko jarduera dela eta | 3.515.414,22 | 3.231.621,40 |
| Erabiltzaile eta bazkideen kuotak | 14.297,09 | 13.301,78 |
| Ekitaldiko emaitzari egotzitako eta jarduera propioari lotutako diru-laguntzak, dohaintzak eta ustiapen-legatuak | 3.501.117,13 | 3.218.319,62 |
| • Salmentak eta jardueraren beste sarrera arrunt batzuk | 209.932,60 | 122.869,10 |
| • Moneta-laguntzak eta bestelakoak | (1.917.176,61) | (1.708.035,10) |
| • Ustiapeneko beste sarrera batzuk | 310,58 | 141,35 |
| • Langileria-gastuak | (993.028,66) | (923.667,84) |
| • Ustiapeneko beste gastu batzuk | (745.937,99) | (696.646,30) |
| • Ibilgetuaren amortizazioa | (2.266,62) | (2.443,47) |
| • Ekitaldiko emaitzara intsuldatutako diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak | 369,50 | 1.326,88 |
| A) USTIAPENKO EMAITZA | 67.617,02 | 25.166,02 |
| • Sarrera finantzarioak | 3.480,42 | 13.469,94 |
| • Gastu finantzarioak | (445,84) | (424,30) |
| • Aldaketa-diferentziak | --- | (465,40) |
| B) EMAITZA FINANTZARIOA | 3.034,58 | 12.580,24 |
| C) ZERGEN AURREKO IRABAZIAK | 70.651,60 | 37.746,26 |
| D) EKITALDIKO SOBERAKINA (AURREZKIA) | 70.651,60 | 37.746,26 |



Hegoa Elkartearen 2010eko txosten ekonomikoa. Eurotan

| 2010eko ekitaldiari egotzitako sarrerak guztira | 3.729.507,32 | %100,00 |
|---|--------------|---------|
| Eusko Jaurlaritza | 1.778.867,90 | %47,70 |
| Bizkaiko Foru Aldundia | 479.378,75 | %12,85 |
| Bilbao Bizkaia Kutxa | 416.480,00 | %11,17 |
| Espainiako Gobernua | 368.601,71 | %9,88 |
| Fondo propioak | 230.981,83 | %6,19 |
| Bilboko Udala | 200.000,00 | %5,36 |
| Beste dohaintza pribatu batzuk | 199.735,58 | %5,36 |
| UPV/EHU – Eusko Jaurlaritza programak | 40.000,00 | %1,07 |
| Europar Batasuna | 12.578,38 | %0,34 |
| Beste batzuk | 2.883,17 | %0,08 |



| 2010eko ekitaldiari egotzitako gastuak guztira | 3.658.855,72 | %100,00 |
|---|--------------|---------|
| Transferentziak lekuetara, proiektuetako bazkideei | 1.703.159,44 | %46,55 |
| Langileria-gastuak (26 pertsona, batez beste, urtean) | 993.028,66 | %27,14 |
| Gastuak Egoitzan, proiektuak betearazteko | 690.869,76 | %18,88 |
| Pertsonen zuzendutako beka. Masterra eta Nazio Batuak | 193.240,31 | %5,28 |
| Gastu orokorrak (langileria-gastua izan ezik) | 78.557,55 | %2,15 |

